



ATAUNGO UDALA

Ohiko bilkura. 2017-04-06

OHIKO OSOKO BILKURA

LEKUA: Udaletxeko Batzar Aretoa.

EGUNA: 2017ko apirlaren 6a.

ALKATEA: Asier Rodriguez Etxeberria.

BERTARATUAK:

- Aitor Arruabarrena Etxeberria.
- Haizea Moreno Torres.
- Migel Mari Jauregi Apalategi.
- Karmele Aierbe Muxika.
- Oihana Mendizabal Asurabarrena.
- Amaia Auzmendi Asurabarrena.
- Iker Contreras Vidal.
- Juan Jose Maiza Ariztimuño.

IDAZKARIA: Maria Pilar Garmendia Miguel.

BATZARRA: Ohikoa. DEIALDIA: Lehenengoa.

ORDUA: Hasiera: 19:00etan.

Bukaera: 20:10tan.

GAIK:

LEHENENGO PUNTUA:

AURREKO BILKURATAKO AKTAK ONARTZEA.

Osoko Bilkurako deialdiarekin batera honako akta agiriak banatu zaizkie zinegotziei, aztertu eta kasua balitz oharrak aurkez ditzaten:

- 2016.11.03 Ohiko Osoko Bilkura
- 2016.11.24 Ezohiko Osoko Bilkura
- 2016.12.22 Ezohiko eta presazko Osoko Bilkura
- 2017.02.28 Ezohiko Osoko Bilkura

Oihana Mendizabal Asurabarrenak hitza hartuta, adierazi du: "Aktak irakurri ditugu eta bi aktatan zenbait dudak dauzkagu. 2016ko irailaren 3ko Ohiko Osoko Bilkuraren aktan, Agitaexen puntuan, jartzen du Herrigintzako 4 zinegotziak aldeko botoa eman dutela, baina bi zinegotzi bakarrik etorri ziren. Gero konturatu gara aktan Haizea Torres Moreno jartzen duela, eta Moreno Torres da. Akta guztitan horrela jarrita dago. Gero, 2016ko abenduaren 22ko ezhoiko Osoko Bilkuraren aktan, Haizea Torres Moreno berriz jarrita dago eta lehenengo puntuan, aurrekontu eta plantilla orgarnikoaren puntuan, aurrekontuaren taula horiek, ez dira onartu ziren taulak.



ATAUNGO UDALA

Ohiko bilkura. 2017-04-06

Idazkariak, hitza hartuta, adierazi du: *“Plenora aurrekontua Excelleko formatuan ekarri zen eta nik bakarrik egin dudana da, informazio hori kapitulaka jartzea da.*

Oihana Mendizabal Asurabarrenak hitza hartuta, adierazi du: *“Baina kantitateak ez dira berdinak, batura ez dira berdinak. Guk jaso genuen informazioa eta hor agertzen dena, ez da berdina. Guk jaso genuen informazioa, excellekoa da eta hori sartu behar da”.*

Idazkariak, hitza hartuta, adierazi du: *“Konforme. Zuzenduko dugu”*

Oihana Mendizabal Asurabarrenak hitza hartuta, adierazi du: *“Eta plantilla organikoa, ez da beste urtetako berdina. Gur daukagun plantilla, ez da.”*

Idazkariak, hitza hartuta, adierazi du: *“Konforme. Zuzenduko dugu”*

Oihana Mendizabal Asurabarrenak hitza hartuta, adierazi du: *“Eta bake epailearen puntu horretan, jartzen du, abstenitu egin ginela, eta egia da abstenitu egin ginela. Baina bazegoen arrazoiren bat eta ez dago idatzita. Guk esan genuen ez genekigula hiru pertsonak zeundenik izendatuta, informazioa ez genuela jaso, deskolokatu samar suertatu ginela eta horregatik abstenitu egin ginen.*

Idazkariak, hitza hartuta, adierazi du: *“Konforme. Zuzenduko dugu”*

Oihana Mendizabal Asurabarrenak hitza hartuta, adierazi du: *“Eta eroldaren puntu horretan, laukitxo bat hutsik dago eta 44 jarri beharko luke. Gero seigarren puntuan, Agitaxeko gaia agertzen da eta puntu hori ez zegoen deialdian. Aurreko plenoan onartu zen. Eta gero Otsobide kontutan ez du jartzen bozkatu genuenik.”*

Idazkariak, hitza hartuta, adierazi du: *“Konforme. Zuzenduko dugu”*

BIGARREN PUNTUA: **ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Azaroaren 28ko 2568/1986, Erret Dekretuaren (ROF) 42. artikuluan xedatutakoarekin bat, Korporazio honen azken ohiko batzarretik gaurdaino eman diren Alkatezaren Ebazpenen berri ematen da, hain zuzen ere 2016/331tik 2016/406 eta 2017/001tik 2017/106 dekretura doazenak, biak barne, honetaz guztiaz Udalbatza jakinean geratzen delarik.-

ALKATETZAREN EBAZPENAK 2016 URTEA

(331 Dekretutik 406 Dekretura)

ALKATETZAREN EBAZPENAK 2017 URTEA

(001 Dekretutik 106 Dekretura)



ATAUNGO UDALA

Ohiko bilkura. 2017-04-06

HIRUGARREN PUNTUA:

ONARTZEA ATAUNGO KULTUR ETA KIROL ELKARTEEI EKINTZEN GARAPENARAKO DIRU-LAGUNTZA.

Alkateak bilkurari hasiera eman dio eta 2017ko ekitaldian kultur eta kirol ekintzen garapenerako diru-laguntzak emateko ondorengo proposamena aurkezten du:

	Gastua	Sarrera Zuzenak	Defizita	Irizpidea	UDAL LAGUNTZA
Hiru Txilipurditan -Zirko eta antzerki material hornikuntza. -Inauteriak. -Ergoiena auzoko antzerkia. -Maiatzeko jaialdiak eta abenduko jaialdia. -Kolaborazioak. -Sormen tailerra. Asvineneara irteera. -Hip-Hip urri.	471€ 650€ 795€ 786€ 870€ 654€ 1000€		5226€	%40	2090,4€
Ataun Kirol Elkartea (Mendia) -IX. Mendi ibilaldia	4000€		4000€	% 30	1200€
-Aizkoate Kultur Elkartea. -Ardo kata. -Mahai ingurua.	300€ 500€		800€	% 40	320€
-Atsedeen-toki. -Jokoak. -Bingoa. -Maiatzeko irteera. -Irteera Saloura. -Uztaileko irteera. -6 eguneko txangoa. -Lizarra-Iratxe irteera, iraila. -Lizarra irteera, urria. -Ataungo jubilatuen ibilaldi neurtua. -Ibilaldi neurtu probintziala. -Aisialdi ospakizuna. -Jubilatuen eguna. -Santo Tomasetako txisto jana.	700€ 100€ 120,50€ 0€ 0€ 0€ 145€ 0€ 100€ 100€ 0€ 1800€ 140€		3336€	%40	1334,40€



ATAUNGO UDALA

Ohiko bilkura. 2017-04-06

-Murkondo Kultur Elkarte.					
-Hiru hitzaldi.	200€				
-Kartel erakusketa Atauniker K.E.rekin.	0€				
-“Aiako gauak” kantaldia.	1000€				
-Aire libreko zine emanaldiak.	60€	3910€	%40	1560€	
-Jentilbaratza Gazteluko ekitaldia Nafarroa Bizirik taldearekin.	1000€				
-Liburu politikoen azoka.	400€				
-Barandiaranen omenezko ekitaldia urte amaieran.	250€				
-JMB Herri Ikastetxea					
-Igeriketa.	2356€	3356€	%40	1342,40€	
-Formakuntza.	1000€				
-HAITZARRI ELKARTEA					
-Kadeteen txirrindulari proba	1100€	1100€	%30	330€	
-EATE ABESBATZA					
-Kontzertua	422€	422€	%40	168,80€	
-AGAUNTZA KIROL ELKARTEA					
-Eskolartekoen karrera.	400€	3900€	%30	1170€	
-53. Ataun San Martin proba.	3500€				
-OLENTZERO KOMISIOA					
-Olentzero eta Mari Dominginen ongietorria abenduan.	150€	150€	%40	60€	

Oihana Mendizabal Asurabarrenak hitza hartuta, adierazi du idatzi bat prestatu dutela eta idazkariari kopia bat emango diogu aktan sartzeko:

“Herrigintzarentzat oso garrantzitsua da gai hau. Herriko elkarte ezberdinen lan eta ekitaldiek, herriari bizia, nortasuna, jakituria eta memoria ematen baitie besteak beste eta herritarrentzat beste zerbitzu batzuk bezala ulertuta, ezinbestekoa da ahalik eta sostengu ekonomikorik handiena ematea.

Diru laguntzen banaketa justua egitea ez da erraza eta udal talde bakoitzak proposamen ezberdinak izanik, 2016ko ekainaren 27an gure proposamena bidali genion udal gobernari, hitz egiteko prest geundela adieraziz.

2016ko azaroaren 23an egin genuen udaleko bi taldeen ordezkariok gai honen inguruan bilera, lehena eta bakarra. Bertan proposamen ezberdinak mahai gainean jarri ondoren, udal gobernuko ordezkariok hau dena baloratzekotan geratu zineten. Zuen proposamenean zuzenketak egin eta gurekin partekatzeke geratu zineten. Ez dakigu zer gertatu den gure proposamenekin, ze eskaera egon diren ez dakigu, eskaera guztiak sartu ote dituzuen edo bakarren bat baztertu ote duzuen ere ez dakigu, ze irizpide erabili diren banaketarako ere ez dakigu.....

Eta gainera, aurreko urteko diru banaketaren likidazioaren berri ere ez dugu izan. Eskatuko ditugu bide ofizialek.

Beraz, gure botoa ezezkoa da.”



ATAUNGO UDALA

Ohiko bilkura. 2017-04-06

Eta besterik bozketa egin da honako emaitzarekin:

Aldeko botoa eman dute EH Bilduko 5 zinegotziak eta aurkako botoa ATAUN HERRIGINTZAko 4 zinegotziak.

LAUGARREN PUNTUA:

ATAUNGO UDALA, GOIENER S.KOOP-EAN BAZKIDE KOLABORATZAILE GISA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Goiener irabazteko asmorik gabeko kooperatiba bat da, %100ean energi-eredu berriztagarrien alde lan egiten duena eta gaur egungo eredu energetikoa aldatzeko asmoa duten ehunaka lagun biltzen ditu bere baitan.

Eredu alternatibo bat eraikitzeko herritarren konpromisoan oinarritutako proiektua da, Euskal Herrian sortua eta inolako dependenziarik ez duena ez gobernuengandik, ez bestelako erakundeengandik ere. Herritar bazkideek osatzen dute.

Bazkide horien ekarpenak energia berdea erostea ahalbidetzen dute, iturri berriztagarrietatik sortutakoa, horien kontsumoa areagotuz. Etekinak, sorkuntza proiektu berritzaileetara bideratuko da.

Energiaren kontsumoa azken urteetan behera egin du. Hori dela eta, Goiener bezalako kooperatibekin kolaborazioa oso interesgarria da. Alde batetik etorkizunean Ataunen kontsumitzen dugun energiaren portzentaje bat iturri berriztagarrietatik lortzeko bidea izan daitekeelako eta bestetik kooperatiba honek aholkularitza zerbitzu bat eman dezakeelako, energi berriztagarrien proiektuak Ataunen garatu ahal izateko.

Bestalde, Goiener Kooperatibaren Estatutu Sozialen 21. artikuluan, kooperatibaren gizarte helburua betetzen laguntzeko bazkide-laguntzaileen izaera xedatzen da. Hitzez hitz, honela dio:

“21. artikulua.

1- Bazkide-laguntzaileak izango dira kooperatibaren gizarte-helburua betetzen lagun dezaketen pertsona fisikoak edo juridikoak, izan gizartean edo izan kooperatiban.

2- Kontseilu Errektoreak onartuko ditu Bazkide-laguntzaileak; horiek aldi baterako izan daitezke.

3- Kontseilu Errektoreak adieraziko du, bere erabakien bidez, onartuek nola lagundu dezakete eta zer eskubide eta betebeharrak dituzten.

4- Bazkide horien botoak ez dira izango boto guztien ehuneko hamar baino gehiago Batzar Nagusian eta Kontseilu Errektorean, non eta bazkideak ez diren sozietate kooperatiboak.”

Kooperatibaren Estatu Sozialen 48. artikuluan, berriz, kooperatibaren bazkide izateko egin beharreko hasierako nahitaezko ekarpenak zehazten dira: hitzez-hitz honela dio:



ATAUNGO UDALA

Ohiko bilkura. 2017-04-06

“48. artikulua. Nahitaezko ekarpenak. Bazkide mota guztiek ez dute hasierako nahitaezko ekarpen bera; honela banatzen da:

- Bazkide-erabiltzaile kontsumitzaileak 100€
- Bazkide-langile mugagabeak: 1.000€
- Iraupen mugatuko bazkide-langileak: 100€
- Pertsona fisikoak diren bazkide-laguntzaileak: 100€
- Pertsona juridikoak diren bazkide -laguntzaileak: 1000€”

Gaia eztabaidatu ondoren, bozketa egin da honako emaitzarekin:

Aldeko botoa eman dute EH Bilduko 5 zinegotziak eta ATAUN HERRIGINTZAko 4 zinegotziak.

Bozketako emaitzaren arabera, ERABAKI DA:

Lehendabizi: Ataungo udala Goiener Kooperatibako bazkide-laguntzaile izateko dagokion eskaera egitea Kooperatibako Errektore Kontseiluari, azalpen zatiaren amaieran azpimarratutako xehetasunarekin.

Bigarrena: Goiener Kooperatibako bazkide-laguntzaile gisa onartua bada Udala, kooperatibaren kapital sozialera hasierako nahitaezko 1.000€-ko ekarpena egitea.

Hirugarrena: Erabakiaren berri Goiener Kooperatibako Errektore Kontseiluari eta kontuhartzaitzari ematea.

BOSGARREN PUNTUA: **GALDERA ETA ESKAERAK.-**

Puntu honetan, lehendakaritzak bertaratutakoei luzapena egiten die interesgarriak deritzotzen galde-eskeak egin ditzaten.

Iker Contreras Vidalek hitza hartuta adierazi du idatzi bat irakurri behar duela: *“2017ko otsailaren 27an herritar batek, talde bat ordezkatur, Aralarko pisten inguruko mozio bat aurkeztu zuela jakin dugu. Mozioan bertan, gai honen inguruan hartu diren azken erabakiak, modu demokratikoago batean eraikitzea eskatzen du besteak beste.*

Honelako gai zabal, sensible eta polemiko batek kontrakoa eskatzen badu ere, erabakitze prozesu gardenik ez da egon gure ustez. Ataungo Udal Gobernuak mankomunitateko azken bilerara eramandako erabakia aldebakarrekoa izan da, eta hainbestetan aldarrikatzen dituen elkarrizketa, eztabaida eta informazioa, gardentasuna eta parte hartzea bezalakoak baztertuta utzi ditu. Hau, oso larria iruditzen zaigu eta beste behin gogor salatzen dugu udal gobernu honen jarrera.

Are eta larriago da ordea, Ataungo udal gobernuaren aurrean, herritar batek gai honetan izan duen espresio bide bakarra inolako azalpenik eman gabe zapuztea, mozioari dagokion plenoko gai zerrendatik kanpo utziz.



ATAUNGO UDALA

Ohiko bilkura. 2017-04-06

Herritarrak ahalduntzearen garaietan eta erabaki edo gutxienez eztabaidatzeko eskubidearen garaietan gaudela jakinda, honako galderak luzatzen dizkiogu alkateari:

- *Ze arrazoi dago mozio hau gaurko udal osoko bilkurako gai zerrendan ez egoteko?*
- *Zein bide uzten diezu herritarrei beraien iritzia edo eztabaida eskaria Udal gobernuari helarazteko?*

Beste gai askotan bezala oraingoan ere tren hau pasa da Udal agintarien interes baakrreko geltokira iritsi arte. Herritarrek era hauen parte baten ordezkaritza aldiz, trenetik kanpo."

Alkateak hitza hartuta, adierazi du: *"Momentu honetan mozio hori apartatuta dagoela. Bere momentuan sartuko da mozio hau eta guk EH Bildurekin erabaki bat adostu behar dugu."*

Iker Contreras Vidalek, hitza hartuta adierazi du: *"Mozioa irakurri duzue? Mozioan zer eskatzen duen badakizue? Oraindik erabakitzeke daukazue zer egin behar duzue gai honetan, atzera edo aurrera eraman..."*

Haizea Moreno Torresek, hitza hartuta adierazi du: *"EH Bildun eztabaida prozesu bat ireki dute. Zuek ondo adierazten ari zareten bezala, gai sensible denez eta faktore asko mahai gainean jarri behar direnez, barne prozesu bat ireki da. Prozesu honetan baitan, erabaki da mozio hori ateratzea. Faktore guztiak mahai gainean jarrita, kontziente gara eta konturatzen gara, sensibilizazio ezberdinak daudela. Prozesu horretan gaude."*

Oihana Mendizabal Asurabarrenak hitza hartuta, adierazi du: *"Herrigintzan ere barne prozesu bat ireki da baina mozio horretan, ez da eskatzen erabaki bat hartzeko, eztabaida prozesu bat irekitzea eskatzen da"*.

Haizea Moreno Torresek, hitza hartuta adierazi du: *"Gu marko politiko batean gaude, sinesten dugulako herri proiektu batean. Orduan, nolabait, erabaki bat hartzeko barne prozesu bat ireki da, EH Bilduren barruan iritzi ezberdin daudelako."*

- i. Oihana Mendizabal Asurabarrenak hitza hartuta, adierazi du: *"Nik azpimarratu nahiko nuke mozio honen berri ez dugula zuengandik jaso. Jaso dugu aurkeztu duen herritarrek bidali digulako. Askok kezkatzen gaitu horrek. Ez dugu ulertzen guri zergatik ez zitzaigun iritsi mozio honen berri udal gobernutik. Ez diguzue esan atzera bota duzuenik, beranduago sartu behar zenik, barne-prozesu baten zaudetenik..... Eztabaida hori irekitzea eskatzen ari dira. Ematen du mozio honekin ados zaudetela. Eta uste dugu, mozio honen berri edukitzea eskubidea daukagula. Jakin nahi dut ea udaletxan sartzen diren mozio guztiak ailegatzeko zaizkigun edo zuek erabakitzen duzue zein bidali edo zein ez."*

Karmele Aierbe Muxikak erantzun dio: *"Mozio guztiak pasatu zaizkizue"*

Haizea Moreno Torresek, hitza hartuta adierazi du: *"Garbi dago batzuek hanka sartu dugula pentsatuko dute baina beste batzuek, ez. Hori alderdi bertan. Horregatik ireki da barne prozesu hori."*



ATAUNGO UDALA

Ohiko bilkura. 2017-04-06

Iker Contreras Vidalek, hitza hartuta adierazi du: *“Nik galdera bat egin behar dizuet. Prozesu horren ondorioz hartutako erabakiak aldatu daitezke? Bai? Ez? Nola ikusten duzue gaia?”*

Alkateak, hitza hartuta adierazi du: *“Mankomunitatean hartutako erabakiak, ezin dira aldatu. Hori atzera ezin da bota. Ez dauka atzera bueltatzerik. Han bozkatu da, eta horrek ez dauka bueltatzerik.”*

Karmele Aierbe Muxikak, hitza hartuta adierazi du: *“Batzar nagusitan prozesu bat ireki da hau eztabaidatzeko. Mankomunitatean hartutako erabakia, hartuta dago. Behartuta gaude hitz egitea eta behartuta adostasun bat iristea.”*

Egoera honetan, 20:10 ordu direnean, Presidentziak batzarra amaitutzat jotzen du, akta hau egiten delarik, nik, idazkari honek, diodanez gertaturiko guztiaren islada zehatza dena. Fede ematen dut.

O.E.
Alkateak,
Asier Rodriguez Elxoberna,



Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak,

Maria Pilar Garmendia Miguel,